



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2008-05-09

VIURTEA 1.429.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Ez dute onartu EAJren eta PSE-EEren mozioa

**VILLABONA** EAJren hiru zinegotzik eta PSE-EEren bakarrak egin zuten ezker abertzalearen hautetsien aurkako mozioaren alde 7



Herenegun Villabonako udaletxeko batzar aretoan izan zen osoko bilkura. I. GARCIA

## Ekitaldiz beterik, gaur ekingo diote Kultur Asteari, mus txapelketarekin

**IRURA** Hilaren 16ra arte adin guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte: ibilaldia, bazkaria, antzerkia, argazki lehiaketa, hitzaldiak... 3



N. URBIZU

**SAROI OYARBIDE** FRONTENIS JOKALARIA

## «Frontenis Txapelketa antolatzearen helburua ondo pasatzea da»

**BALIARRAIN** Saroi Oyarbide eta Aitor Aranburuk antolatu dute estreinakoz; hilaren 31n hasiko da 6

**ceinpro**  
Diseinua eta kreazioa halmenean oinarritutako heziketa

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA: 2. Ikasturte / 2000 ordu  
SARPERA: UH - LH I - EE I - eta HSACEL BAZKILERGIA gaituzte
- **ARTE GRAFIKODEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN EREZ MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA: 2. Ikasturte / 2000 ordu  
SARPERA: 2. BEB - LH I - EE I - eta DBH gaituzte

Logo of CEINPRO and other accreditation logos.

**hitza** info  
elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

## Z Zurea da hitza info

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'zurea da hitza' atalean; e-mailez, tolosaldean@tolosaldeko hitza.info helbidean eta telefonoz, 943 655695 zenbakian.

### Gaur buruz buru mus azkarrean

Elduaingo muslariak deituak daude ostiral honetan (gaur) Biltokira agertzera. Gaueko hamarretan hasiko da udaberriko mus azkarra, momentuan apuntatzen diren bikoteen artean. Egun horretarako eurria eta preskura espero denez, barru-giroa suspertzea da errezetarik egokiena, jokoan, musika-alaiean eta zintzur bustitzean.

**Elduain.**

### Lau jaunartze pasa den asteburuan

Abaltzisketan maiatzaren 4ean 4 gaztetxoren jaunartzeak izan genituen: Amaia, Iñaki, Belen eta Elixabet (argazkian ezkerretik eskuinera). Egun zoragarria egin zuen eta denok ondo ospatzeko aukera izan genuen. Zorionik beroenak, laukote!!

**Abaltzisketa.**

### Eskola arteko herri kirol lehiaketan, Orixe txapelketa

Pasa den astean, Gipuzkoako Kutzak babestu eta Xiba taldeak antolatutako Gipuzkoako Txapelketan parte hartu du Orixe institutuak.

Anoetan egin zen bailarako fasea irabazi eta gero, pasa den astean Gipuzkoako txapelketa ospatu

zen Villabonan, eta bertan gure ikastetxeko DBH 1.B mailako neska-mutilak txapelketa izan ziren.

Zorionak denei!  
**Orixe (Tolosa).**

### Nire zaborrekin paseatzen

Alde Zaharretik zaborrontziak kendu zituztenetik zabor poltsak hartu eta beraiekin joaten naiz kaletik. Izan ere, gertuen dudak zaborrontziara joateko makina bat pauso eman behar ditut. Ez da fina beraz egin dezatela zerbait, Alde Zaharrekoek ere zaborra sortzen dugulako.

**Alde Zaharreko bizilagun bat.**



## Kometak zeruan



### » Kale kantoitik

**Joxemi Saizar**

**K**ometak zeruan. Khaled Hosseiniren liburu eder hau bukatu berri dut eta asteburu honetan liburuan oinarritutako filma Leidorren ikusteko aukera izango dugu. Afganisten azken urteotako historia azaltzen du eta hain urrutiko paraje haietako jendea eta bizimodua hobeto ulertarazten laguntzen du kontakizun apartak. Ea filmak ez dion hutsik egiten liburuari, beste askotan gertatu izan den bezala.

Loreak mendian. Eta eskolan. Oraintxe ari baikara landatzen ikasleekin. Duela lau urte lagun batek esan zidan mendian loreak usaitzea, txoriak entzutea eta tximeletak ikustera joaten diren lagun batzuekin ateratzea XIV Orduko Martxan eta horiek denak alde batera utzi behar izan zituztela, jendea atzetik bultzatzea zutelako. Horrelakoetan txorakeria horietarako denborarik ez da izaten. Ez eta behar fisiologiko minimoak betetzeko ere ia. Aurreko batean zutabe honetan mendizale korrikalarien kontra idazten nuen eta Berazubira bidaltzen nituen. Igan-dean Berastegin izan zen martxan jende gehienak zortzi ordu erabili zituen bitartean, batzuk lau ordu besterik ez omen zuten egin. Eta etxeko bat hor inguruan ibili zen. Lau ordu eta erdi egin zuen... eta iritsi zen hamabigarren taldea izan zen. Etxekoak okerrenak! Gazte kirolari hauekin ez dago!

Garagardoak tabernan. Garagardo festen zikloa badator. Ibarrran hasiko da hil honen bukaeran. Ondoren etorriko dira Alegia, Iruera, Villabona eta Tolosa. Gure inguruan. Gehiago ez badira. Sagardotegien erreleboa hortxe dauka. Horietan ere mendi martxa luzeetan bezala txartel bat ateratzea beharko lukete, bakoitzaren markak apuntatzeko.

Perretxikuak basoan. Zertara dator hau, ez da perretxiku garaia eta? Bertsolariak erimarekin bezala, hemen ere ondo zetorren eta horregatik sartu dut.

**@ Eztabaida.** «PSE-EEK eta EAJk mozio etikoa aurkeztuko dute Villabonan eta horren aurrean EAE-ANVK beste mozio bat aurkeztuko du. Zer iritzi duzu gai honi buruz?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia Hitzak proposaturiko eztabaida honen inguruan.

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

## berria

**Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak**  
hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 23a  
**Tokia:** Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean

### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAko Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederati eta erdietan.

### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAren Iruñeko egoitza, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskalera, 13. ezkerre.  
**Ordua:** goizeko 10:00etan.

**Probata curriculumak ekarri behar da**

## B Blogteka info

### Elkarbizitarako behatokia berri ere eredugarri

Hirukide ikastetxea elkarbizitarako behatokia, guztien topaleku.

Hori da *Hik* hasi aldizkariak bere 128. alean eskeintzen duen berria.

Maiatzako zenbakian Gizarte Laguntzaileen esperinetziak azaltzen dituzte eta Txaro Etxeberria Orientatzaileari Luz Clementerekin batera aterako informazio frexkua argitaratu dute.

Gizarte Laguntzaile, Gizarte Hezitzaile eta ikastetxearen artean urteetako elkar lanaren ondorioz 2006an sortu zen Hirukiden Elkarbizitako Behatokia. Gizarte Hezitzaileek, beraien beste ikuspuntu aberasgarri bat emanaz, modu iraunkor batean lana egiten dute. Esperientzia ona da eta gehiago jakiteko aldizkaria erosi edo jakitumei galdetu.

**Hirukide ikastetxean**  
<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/hirukide>

### Fronte polisarioak 35 urte

1975. urte bukaeran, Franco diktadorea hil berritan, estatu espainiarak Mendebaleko Sahararen deskolonizazio prozesua Hayako Auzitegiaren aurrean defendatu zuen bezala koherentziak jokatu ordez, eskuak garbitu eta lurralde hartatik aldegitia erabaki zuen. Une hori aprobetxatu zuen armada marokotarra bertako erregeak sustatu zuen martxa ateratzei informazio zibilin inbasioa indarkeriaren bidez defendatzeko, aldi berean, Mendebaleko Saharako milaka herritarrek zuten guztia alde batera utzi eta basamortu aldera aldegin behar zuten aurkitu ziren. Ihesaldi eronnetan marokotako armadak buruturiko napalm-eko bombaketetan ehundaka haur, emakume nahiz adineko erahil zituen. Helburua Saharar Herriaren anikilazio fisikoa zen, Genozidioa (...)

**Harea eskuetan**  
<http://www.tolosaldeko hitza.info/bl/gak/sahararekin>

## II. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finalerdiak izango dira gaur

### ERREDAKZIOA

Asvinenea eta Ardilatzak antolatutako II. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finalerdiak jokatuko dira gaur. Ekialdia 22:30ean izango da eta lau talderen lanak ikusi ahal izango dira. Hauen iraupena zortzi eta hamabost minutu bitartekoa izango dira. Gainera, saio hauez gain, gauari amaiera emateko Jon Casarens gitarra eta armonika emanaldia izango da.

Ondorengo ikuskizunak eskainiko dituzte. Magia Teatro taldeak *La muerte del corredor* taularatu du. Bazen behin clown taldeak berri, *Esta si que si* eskainiko du. Hirugarren lana Hernanikoa taldearena izango da, eta hauek *La mochila* lanarekin datoz. Azkenik, Latirili teatroyen eskutik, *Stop al panico* ikusi ahal izango da.

## AEKn euskara irakasle izateko, glotodidaktika ikastaroa abian da berriro

### ERREDAKZIOA

Datorren ikasturtean Andoaingo eta Tolosaldeko AEKn irakasleak behar direla eta Gipuzkoako AEKk glotodidaktika ikastaro berria antolatu du. Ikastaroa Donostian egingo da, Antiguako AEK eskalategian, ekainaren 30etik uztailearen 24ra. Informazio gehiago nahi duenak 943 32 71 72 zenbakira deituta eskuratu dezake, edo Andoaingo AEKren egoitzan.

# Kultur ekitaldiz blai dator aste hau, irurarrentzat

**Irura** » Gaur, mus txapelketako finalerdiak emango diote hasiera Kultur Asteari; hilaren 16ra arte luzatuko da.

### ERREDAKZIOA

Azterketen aurretik, ikasturteko azken hilabetea da maiatza. Honenbestez, estresak arintzeko, eta bide batez ongi pasatzeko, Kultur Astea antolatu dute Iruran. Beraz, hilaren 9tik 16ra bitartean izango da zer ikusi eta eginik herri honean.

Ekitaldiei hasiera emateko, gaur taberna eta elkarten arteko Mus Txapelketaren finalerdiak eta finala jokatuko dira 22:30etik aurrera, Zaharren tabernan. Apirilko 3 ostiralean kanporaketak eta finalerdienak jokatuko ondoren finalerdietara lau bikote iritsi dira, lau elkarte ordezkatzuz: Gazte Alaiak Elkarte, Ernesto Sagardotegia, KMK-08 eta Ikastolako Gurasoen Elkarte. Zozketa egingo da lehenengo partida erabakitzeko. Hau jokatutakoan bi irabazleek lehenengo eta bigarren posturako lehia jokatuko dute, bi galtzaileek hirugarren eta laugarren posturako eta kanporaketetako bi multzotako 6. sailkatuek bakailoa lortzeko partida jokatuko dute.

### Maiatzak 9, gaur

■ **22:30ean.** Taberna eta elkarten arteko Mus Txapelketaren finalerdiak eta finala jokatuko dira Zahar-etxe tabernan. Jarraian, sari banaketa.

### Maiatzak 10, bihar

■ **11:00etan.** Plazan elkartu eta ibilaldia egingo dute oinez, KMK-08ko zirkuitoan. Ondoren, gurasoen jokoak izango dira.



1, 2, 3 Inaxito bertso antzerkia izango da ikusgai bihar. HITZA

■ **14:00etan.** Bazkaria. Ondoren, antzezlan barregarria Gaztelekuko kideekin. Jarraian, Loatzo musika eskolakoekin batera abestuko dute.

■ **18:00etan.** 1, 2, 3 Inaxito aur-  
rentzako bertso-antzerkia izango da. Ikuskizun hau Irurako Udalak antolatu du eta *Euskaraz bai* kanpainari dagokio.

### Maiatzak 11, etzi

■ **Argazki lehiaketa.** 6 urtetik 16 urte arteko irurarrentzat. Egun guztian zehar edozein lekutan atera daitezke argazkiak.

■ **Herri urrats.** Iparraldeko ikastolen aldeko jai Senpereko lakuan.

### Maiatzak 12, astelehena

■ **17:00etatik aurrera.** argazki lehiaketako lanak aurkeztea gaztelekuan eta liburutegian.  
■ **19:00etan.** Julian Bereziartua sendagilearen hitzaldia izango da Ikastolan, *Gure osasun kontuak* izenburupean.

### Maiatzak 13, asteartea

■ **17:00etan.** Jubilatuen jokoak. Bote eta toka plazan. Bestetik, mahai-jokoak egingo dira Zaharren biltokian.  
■ **17:30ean.** Kafe-tertulia izango da Ikastolan A. M. Urangarekin, *Nola lagundu haurrei ohitura osasungarriak har ditzaten* gaiaren irurguruan.

### Maiatzak 14, asteazkena

■ **17:30ean.** Haur antzerkia, Trinteketean, *Zuk jaunaren alfabeto berria* Irintzi produkzioen eskutik.

■ **19:00etan.** Patxi Usobiagaren ikus-entzunezkoa Ikastolan. *Patxi mundu bertikalean.*

### Maiatzak 15, osteguna

■ **17:30ean.** Argazki lehiaketako sari-banaketa.

■ **18:00etan.** Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia izango da plazan. Ondoren, merienda.

■ **19:00etan.** Isidro deunaren omenezko meza. Bukatutakoan, Irurako dantzarien saioa plazan.  
■ **21:00etan.** Herriko baserritarrentzat afaria zaharren biltokian.

### Maiatzak 16, ostirala

■ **16:45ean.** Jubilatuen Ibilaldia plazatik aterata herriko kaleetan zehar. Ondoren, sari-banaketa eta askaria Zaharren Biltokian.

■ **18:00etan.** Pilota Eskolako jokalariren arteko pala eta xare partidak trinketean.

■ **22:30ean.** *Txapela buruan eta ibili munduan*, Aitziber Bilbao aktorearen bakarrizketa Trinteketean.

■ **Erakusketa.** Ziri-enkaje, pintura, egur-taila eta eskulanetako ikastaroretako lanak, nahiz ikastolako haurrek egindakoak ikusgai dira Kulturuneko bigarren gelan, hilaren 12tik 16ra, 17:00etatik 19:00etara.

## Kirol jarduera

### Gaur

#### Futbola

■ Usabal kiroldegian Futbol Indoor-eko partida jokatuko da 20:00etan. Realak Betis izango du aurkari.

### Bihar

#### Pilota

■ Beotibarren Zesta puntako Herri Arteko Txapelketan, Tolosa eta Donostiakoen arteko norgehiagokak izango dira 16:30etik aurrera.

#### Futbola

■ 16:30ean, hirugarren mailako Tolosa eta Santurtziren arteko partida jokatuko da Berazubun.

■ 10:00etan Kadeteen Ohorezko mailan, Tolosa eta Hernaniren arteko partida jokatuko da Usabalgo zelaietan.

■ 11:45ean, kadeteen lehendabiziko mailan, Tolosa eta Vasconiaren artekoa izango da Usabalgo zelaietan.

#### Eskubaloia

■ 20:00etan, Usabalgo Kantxa nagusian infantilen finalerdiak jokatuko dira. Bertan izango dira aurkari, Irun eta Zarautz.

■ 13:15ean berriz, Kantxa nagusian, infantilen finalerdiak jokatuko dira, eta Xurumurruru eta Aloña mendiren txanda izango da.

■ 18:00etan, behoko kantxan, senior mailako kopa jokatuko da. Tolosa eta Eibarren arteko partida izango da.

#### Areto futbola

■ 16:00etan, Laskorain eta Logalese arteko partida jokatuko da Usabalgo kantxa nagusian.

#### Saskibaloia

■ 18:00etan, 1. go mailako Take eta P. Lejarziaren arteko partida izango da kantxa nagusian.

■ 10:30ean, Infantiletan, Take B eta Bergararen arteko norgehiagokak izango da Usabalgo behoko kantxan.

■ Take Laskoraineko kadete neskek 12:00etan dute partida, behoko kantxan, Lasarteren aurka.

■ Juniorren mailan, Take eta Zarautzen artekoa izango da 16:00etan, behoko kantxan.

## U Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

### I. urteurrena ARANTXA ARRESE ERAUSKIN

2007ko maiatzaren 7an hil zen.  
-Goian bego-



Urteurrenoko meza ETZI, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN izango da Zaldibiako SANTA FE parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

ZALDIBIA  
2008ko  
maiatzaren 9a

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900  
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

# ZEURE HERRIAN ARROTZ

**Gizartea** » Pas den Aste Santuan Saharara okupatuan izan zen Jon Anarburu alegiarra; bertan bizitako esperientzia kontatu nahi izan du.

**JON ANARBURU**

Zeure herrian bertakoz ez bazina moduan sentitua beharra gogorra da. Kalera atera eta zure inguruko askok, biziko baziren, alde egin behar izan zateke jaitzia hargarria, eta zuk zure gariaren ez zurema ihes egin baino orain egindako zurema pentsatzen du gariarra. Eta, hain ere, askok eta askok bertan jarraitzen dute. Mendebaldeko Saharara okupatuan. Lur hartasok dira bertatik eta bertan gurasok, eta hauek anabesak.

Saharar gehienak Aaiun, Smara, Dakhla eta Bojador-en bizi dira, baina Marokoko Gobernu kolonizatzaileak errola zabaltzeki egiten ez duenez, ezin da jakin zenbat lagun bizi diren herri hauetan, eta are gutxiago hauekiko zenbat diren bertakok eta zenbat kolonoiak (militarrak, politikak edo zibikoak). Hala ere, diotenez, Aaiunen bertan saharar baino militar eta politikari gehiago daude. Eta hori nabarmena da hiriburuak kaltetuta ez dagoelako bazihera berarengatik ezin unifornedunak gabe; eta unifornegabeak zer esanik ez. Bertakok oinetsiak bereizteko erabiltzen dute. Korri egiteko zaparratik badira, poliziak da.

Korri egitekoak, bi izan ere, sahararrek ezin dute zer diren adierazten duen sinbolo bat bera ere erakutsi. Darrah edo Melfa (jantzi tradizionala) ez bada, eraberrita, Aaiunen bertan, sahararrek baino, militar eta politikari gehiago bizi dira. Sahararrek ezin dute zer diren adierazten duen sinboloak erakutsi, jantzi tradizionala ez bada.

**Kartzelatan 200 lagunena lekuan, 800 lagun daude; 600 saharar inguru desagertuta daude**

kutsi orduko paisaioz; dogoen polizia atxolota eta torturatu egiten baititu; eta zer esanik ez sahararren aldeko manifestazio baten parte hartzen badute. Horrelako kasuak 2008. urtean infituda hasi zutenetik aurrera izan dira eta ez dirudi Marokok atzera egotzirik pentsatzen duenik. Bertan dauden Nazio Batuen Erakunde (NBE) indarrek ere ez dute ezer egiten honen inguruan, neutralak dira-eta. Inoren alde edo kontrako egiten ez dutenak.

kartzeko zoko bihurtu dituzte. Sakaldekotuta, komunen kanonuta, ohera eskubidunduta... edukitzen dituzte nahi adina denboran, nork ezin baita bertan egotzaz galdetu, teoriatik desagertuta daude eta. Sahararren teoriatik desagertu aditza baituzten sinonimoa da, baina.

**15 lagun itsasoaan desagertuta**  
Sidil Mahmud 50 urte inguruko gizona zirela, ez du osen hitz egiten bainu bati irrimo. Ez da gurtzazko bere bi seme beste 13 lagunekin batera Kanariar Irietarantz abiatu ziren esku artean zenbait DVD zituzteko. DVD hauek informatibako zenbait bideo eta beste hainbat argazki zudeen. Familiak bertan bertatik ez zuela eta bertatik agindua eman zuten, inoan hiri eto ziren jakiteko, bada, itxasoan pateraren arrastorik ez zegoen, eta zer baita sasu nautika gidozka hasi eta bera non jakiten dituzten.



Preseko zaldetan elkarren gainean egiten behar dute lo, baina komunen ere...

meak Marokoren kartzela sekretuetan daudela. Zer dela eta hainko interes Marokok infitadaren berri ez emateko? Zer arazotan argazkien artean Poliziaren argazkiak ere bazudutako. Politziak paterari bultzaka agertzen omen zen zenbait iruditan.

Kontatu da, Poliziak marokorrek ez diola inori pateretan ataritzen uzten, Europako herrialdeekin duen hitzarmena dela medio. Ezin du inork paterarik hartu, sahararra ez bada. Sahararra bada, itxasontzira joatera bultzatzen du eta bide errazten du. Ez erabat, ordea.

Khadija Mahyoub-ek kontatzen du 90 lagunez betetako hiruro patera abiatu zirela Kanariar Irietara, baina abiatu orduko itxasuntziko patroi marokorrek unzia utzi zuten eta marina marokorren laguntzaz ihes egin ahal izan zutela. 90 sahararrek bertan itoizten zitza.

Harekiko eta bestelako kontu ugari entzuten dira Mendebaldeko Sahararako paterari bertatik jakitera joaten denak. Askok eta askok entzun nahi ez gogutzekoa. Baina batzuetan irakurri eta entzun nahi ez dugun ere entzun eta irakurri egiten behar da.

# Sahararen egoera politikora gerturatzeko jardunaldiak

**Gizartea** - Bihar eguerdian hasiko dira jardunaldiak, elkartzan plakan inagurazioarekin; ekitaldi ugari izango dira.



Tolosaldia Sahararen elkarreko kideak jardunaldiak aurkezten. GARCIA

**EREDAKZIOA**

35 urte beteko dira bihar Mendebaldeko Sahararen Autodeterminazio eta Independentziaren aldeko erakunde, Fronte Polisario, sortu zenetik. Hamar egun berandu, 1975. urteko martiaren 16an, espainiar indar okupatzaileak aurkako borroka amaituari hasiera eman zioten. Urte mugua hainek kontatzen hartuta, Tolosaldeko Sahararen kideak elkarrekin jardunaldi batzuk antolatuta dituzte. Momentu hori aprobetxatuz, amara marokorrek bertako erregak sustatu zuten Martxa Berdean abian jartzeko. Mendebaldeko Saharako milaka herritarrek zuten guzti utzi eta basamortu aldera alde egin behar euren aurkiko ziren. Hesiak Marokoko armadak ehunka haur, emakume nahiz adinako erail zituen. Marokok buruturiko eraso bortitzari aurre egiteko prestatu ziren, martxan zen Mendebaldeko Sahararen okupazioaren aurkako mugimendua. 1976an, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuten.

## HISTORIAN ATZERA EGINEZ

1975. urtean, Espainiak Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesua defendatu ordez, eskuak gurtitu eta lurralde hartatik alde egitea erabaki zuen. Momentu hori aprobetxatuz, amara marokorrek bertako erregak sustatu zuten Martxa Berdean abian jartzeko. Mendebaldeko Saharako milaka herritarrek zuten guzti utzi eta basamortu aldera alde egin behar euren aurkiko ziren. Hesiak Marokoko armadak ehunka haur, emakume nahiz adinako erail zituen. Marokok buruturiko eraso bortitzari aurre egiteko prestatu ziren, martxan zen Mendebaldeko Sahararen okupazioaren aurkako mugimendua. 1976an, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuten. Sahararrek Herriak 33 urte, 16 urte gerran eta 17 su etean egoeran daramatzate. Saharar herriaren askatasunaren aldeko borrokan gerra bizirik mantenduz duen erakunde Fronte Polisarioa izan da.

## » EGITARAUUA

- Maiatzak 10, bihar**  
• 12:00. Fronte Polisarioaren sorreraren 35. urteurrenaren eguna. Elkartzan plaka jerrero dute bertan Erretorio Arrese hortegian. E-Ako Fronte Polisarioko ordezkaria Fatma Mohamed Salem eta Tolosaldeko udalburu ordezkarik izango dira. Ondoren, lunch-a eta tea.
- Maiatzak 12, astelehena**  
• 19:30. Hitzaldia: Afpredesa (presoa eta desagertu sahararen sendeak). Hilaria. Mohamed Laabid (Elkarreko ordezkaria). Tolosalde Kultur Etxean.
- Maiatzak 13, asteartea**  
• 19:30. Sahararen ez erabakidokumentalaren emanaldia. Kultur Etxean. Fishara 2008 (Dajla erre-fuxiatu kanpamentuak) zinemaren festibalaren zilarreko gamela eta bazir berri du. Dokumentalaren on-

- Maiatzak 15, osteguna**  
• 17:30. Herrikoletako lurralde okupatutako elkartzak hitzaldia, Lorea Agirre eta Joseman Pastor kazetarien eskutik, Tolosalde Kultur Etxean.
- Maiatzak 17, larunbata**  
• 17:30. Mendebaldeko Sahararentzat Autodeterminazio eta Independentzia lelopean, manifestazioa, Bilbon, 17:30an.
- Maiatzak 20, asteartea**  
• 20:00. Borroka armatuaren hasieraren 35. urteurrenaren eguna. Elkarnataratze egindako Plaza Zaharrea, udaltelean euren aurrean, Maroko Sahararikot, autodeterminazio eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat lelopean.

doren, egilearen solasaldia. Kultur etxean izango da.


eta Marokoren artan A.B. Baten, Nazio Batuen Erakundearen babespean, burutu den elkarriketa sasoiz arlo da. Urtean lekuzten den hainok egoerari ataraldira bat emate aldera hasi ziren elkarriketa hauek, baina momentu aurrean pasatu aipagarriak ez da partatu. Ben Ki-moon NBEko idazkari nagusiak berak ere aitortu du hori: «Negozioziazio joa daitekean partekaririk ez da asperu izan».

# Errefuxiatuen kanpamentuetako errealitatea


**INGO TERRAZOLO**

Aljeriako Tinduf hiria erandun dauden errefuxiatuen kanpamentuetan izan ziren Aste Santuan, bertan dituzten familiak bizitokiak laburra egin asmoz, eskualdeko lau lagun. Opor egunen ostean ere eskualdeko beste hainbat herritar izan dira kanpamentuetan euren kabuz antolatutako bidaietan.

**Nahi eta ezin**  
Urte asko igaro dira euren lurralde utzi eta Aljeriako basamortuaren zati horietan kokatu zirenetik. Geliyeg. Behin behinako egoera izango zela uste zuten, baina nork dakin noiz arte egozko diren han. Geroz eta laguntza gutxiago iristen zaitela diote, egun geroz eta larriagoa dela. Ezintasun egoera honetan, lurralde aurreratuetatik iritsen dutena gutxatu eta nahi dute kontratatzen hasi, baina, bidez ere gaitzak. Itxaropena galduz doan hoinetan, han etorri zutenik Basi ez eta ihes egiteko dute buruan askok. Irtenbidea, ordea, bi lurralderen arteko gaitzaka konpontzea litzateke, eta prozesu horretan parte hartu beharko luketenaik asko dira. Prozesu horretan parte hartzea komeni den ala ez, pentsatzen baina, ahazturiko desbertu zati horretan dauden milaka eta milaka pertsonen etorkizunearn pentsatzen dago benetako funtsa.



Errefuxiatuen kanpamentuetan, eguzkia sartzen ari den unean...



Saharar neskatilla bat... c



Astokak bultzatutako gurdietan gatzetoak...



Erakumek eta euren umeak kanpamentuetan pasatzeko...

## E Elkarrizketa

SAROI OYARBIDE » Frontenis jokalaria

## «Helburua ondo pasatzea da; ez dugu aukera askorik jokatzeko»

**Baliarrain** » Frontenis Txapelketa antolatu dute eta hilaren 31n hasiko da herriko pilotalekuan. «Ondo pasatzeko» banakako txapelketa da. Hilaren 15era arte eman daiteke izena parte hartzeko.

## NEREA URBIZU

Baliarrainen lehen aldiz aurtun frontenis txapelketa bat antolatu dute. Horren ideia Tolosako Saroi Oyarbidek (1976) eta Aitor Aranburu beasaindarrak izan dute eta laguntzaile asko izan dituzte hau posible izateko.

**Aitor eta zu, nolatan elkartu zineten? Nola otu zitzaizuen txapelketa antolatzea?**

Frontenisean ibiltzen gara biak, oso gustuko dugu. Abenduan edo, Berrobiko txapelketa bukatuta, esaten genion elkar, pena zela halako gehiago ez izatea, eta zergatik ez ote ginen animatzen uda partean beste bat antolatzen. Orduan egindako komentario bat zen, besterik gabe. Baina duela hilabete bat edo, Aitorrekin harremanetan jarri eta frontoiak begiratzen hasi ginen: aurkitzen baldin bagenuen, egingo genuela esan genuen.

**Eta zergatik Baliarrain?**

Ikaztegietara joaten naiz jokatzera, astean behin, edo. Han jendea zegoen batean Baliarrainera joateko esaten ziguten, hura beti libre zegoela. Hara joan, librexeago zegoen, eta oso ondo zegoela ikusi genuen. Udaletxearekin harremanetan jarri ginen, eta oso jarrera

ona erakutsi zuen hasieratik, prest zegoen frontoia uzteko.

**Antolakuntza aldetik lan handia egin behar izan duzue?**

Duela hilabete bat hasi ginen: dena oso azkar egin dugu. Udaletxeak baiezkoa esan eta gertuko enpresekin jarri ginen harremanetan, sarietarako, eta binaka edo banaka izatea erabaki: tontakeria badirudi ere, sarietan eragina du, hau da; aurrekontuetan. Ahal dugun txukunen egin nahi izan dugu, eta horregatik, banaka egitea erabaki genuen. Izen-emateko garaian dudu izan genuen: 5 euro oso merkea da, baina Berrobiko erreferentzia hori da eta jendeak hori dauka buruan. Hori mantentzea erabaki genuen.

**Laguntza, beraz, izan duzue.**

Bai. Laguntza ekonomikoa eman dutenak alde batetik: sei kolaboratzaile izan ditugu, Tolosako Orbela taberna, Sustria fruta denda, Olosa edaritegia, [www.gurepoker.com](http://www.gurepoker.com), Urbil etxegintzako materialak eta Insaluz. Eta bestetik, babesleak, bestelako laguntza eman dutelako. Azken hauek Baliarraingo Udala, Zartagi jatetxea, Aralar Kirolak (kamixetak egingo dizkigu), Dosges komunikazio grafikoa (kamixetaren diseinua eta kartela egin du) eta Elduainen hizkuntza eskola.

**Lana hartu duzue, beraz.**

Bai, baina polita da. Ez nuke esango lana denik, dedikazioa behar duen zerbaitek baizik. Nire inpresio apala da, baina jolasteko gogoia alde batetik, antolatzeko gogoia bestetik, eta ikusita forma hartzen ari dela polita izaten ari da. Bestalde, aldi berean paraleloki, Berrobiko antolatzen dutenentzat ere aukera polita da lasai jokatzeko. Azken finean, antolakuntza aldetik ikusten ez den lana dago atzean. Partidak kontrolatzen, epaileak, hor egotea... Gustuarekin egiten ari gara hau, baina orain ikusten dut lana badagoela. Zeharkako arrazoi bat badago Berrobikoengatik: jokatzeko aukera izateko, beraien txapelketatik kanpo ere.



N. URBIZU

Tokatzen zitzaien ba, haiei lana egin gabe txapelketa batean parte hartzeko aukera izatea, ezta? Eskertzekoa iruditzen zait Berrobikoekin orain arte egindakoa.

**Kartel horiek guztiak jartzeko nola moldatu zarete?**

Tolosaldean, Goierrin, Legazpiraino ere joan gara. Donostian txapelketa bat dago asteburuan eta hara joaten ere saiatuko gara. Halere, zaila izango da jendea biltzea banaka delako. Kartel hauek jartzeko orduan, gure koadrillako jendeak lagundu digu, bai Aitorrekin eta baita neurekin ere. Tolosatik abiatu eta bata alde batera eta bestea bestera ibili gara. Gaueko 00:30ean bukatu nuen nik adibidez, lagun batekin Larraitzen afaltzen gure zatia egin eta gero. Nire kasuan, beste lagun batzuk ere beste zonalde batzuetan ibili ziren Tolosaldean. Aitor ere, berdintsu

ibili da. Lagunen laguntza, esker-tzekoa da.

**Helburu nagusia zein da?**

Helburu nagusia da ondo pasatzea eta lehenengo urtea izanda, ahal dugun eta jende gehien elkartzea jokatzeko. Oso gustuko dugu frontenis eta pilota mota honekin txaraino ere joan gara. Donostian txapelketa bat dago asteburuan eta hara joaten ere saiatuko gara. Halere, zaila izango da jendea biltzea banaka delako. Kartel hauek jartzeko orduan, gure koadrillako jendeak lagundu digu, bai Aitorrekin eta baita neurekin ere. Tolosatik abiatu eta bata alde batera eta bestea bestera ibili gara. Gaueko 00:30ean bukatu nuen nik adibidez, lagun batekin Larraitzen afaltzen gure zatia egin eta gero. Nire kasuan, beste lagun batzuk ere beste zonalde batzuetan ibili ziren Tolosaldean. Aitor ere, berdintsu

## » DATU BATZUK



■ **Txapelketa.** Banakako frontenis txapelketa.

■ **Noiz.** Larunbat eta igandetan, maiatzaren 31n hasita.

■ **Noiz arte.** Hiru asteburutan, ekainaren 15ean finalak izanik.

■ **Non.** Baliarraingo frontoian.

■ **Izen-emateak.** Datorren ostegunera arte, Aralar Kirolak (Tolosa), Urrutia Kirolak (Beasain) eta Olosa Taberna (Legorreta).

■ **Prezioa.** Bost euro.

■ **Sistema.** Kanporaketa.

guztiak izena eman dezala emandako aukeren bidez. Honetan hasi naiz kirol hau oso gustuko dudalako, hau antolatzea polita iruditzen zitzaidalako, eta Berrobikoekin ere modu batera merezi dutelako, lasai jokatzeko aukera emanez.

**Sariak ere badira.**

Bai, lehenengo hiruentzat. Parte-hartzaile guztientzat kamixeta bana izango da, Baliarraingo Frontenis Txapelketakoa, hain zuzen. Lehenengoarentzat Baliarraingo Zartagi jatetxean bi lagunentzako afaria, txapela eta erraketa izango dira. Bigarrenentzat garaikurra, erraketa eta 2 ardo botila, eta hirugarren egiten duenarentzat, berri-z, garaikurra eta Goiburuko (Idiazabal) gazta.

## Iragarki laburrak

## LANA

- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.
- **Sukaldaria.** Sukaldari laguntzaile behar da Villabonan. Deitu: 653 74 10 91.

## BESTELAKOAK

- **Galdutakoak.** Artzai txakurra, beltza eta oinak txuriak. Lepoa operatua du. Eskertuko da. 943 30 02 35.

## ALOKAIRUA

- **Baserría.** Baserría hartuko genduke errentan bi lagunek. 656 7038 14.

## Laburrak

## Loatzo musika eskolakoak gaur Ategorrietan

**MUSIKA** » Gaur 18:30ean Ategorrietako Zuhaitzi herri eskolan, Loatzo Musika Eskolak Zurriolako Musika Eskolarekin musika elkartruke bart egingo dute elkarrekin emanaldi bat eskainiz.

## Jubenilen eta seniorren partidak gaur eta bihar

**PILOTA** » Gaur Alegiako frontoian Hitza Pilota Txapelketako partidak izango dira jubenilen mailan. 20:00etan hasiko dira eta hiru norgehiagoka izango dira. Seniorrak, berriz, bihar Beotibarren ariko dira 10:00etatik aurrera eta NARBATE, Galarraga, edo Iruretairen tainaino pilotariak izango dira.

## Agoteen lurretara ibilaldia antolatu dute


**AIZTONDO** » Larramendi kultur bazkuna Agoteen lurretan txangoa antolatu du biharko: Baztan, Aldude, Santxotena museoa... Izen-ematea, 943 696450 zenbakian edo [txangoak@topagunea.com](mailto:txangoak@topagunea.com).

## Alkartasuna Portugaletera bidia kobratzen hasiko da

**ANOETA** » Alkartasuna jubilatuen biltokiak Portugaletera bidia antolatu du. Astelehenera aurrera bidia kobratzen hasiko da Biltokian, 18:00etatik 20:00etara. Alkartasuneko kideek 27 euro ordaindu behar dute eta ez direnek 30. Ordaintzerakoan bidaiaren txartela emango zaie.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



1. Ezker abertzalearen jarraitzaileek elkarretaratzea egin zuten udaletxe atarian, *Amasa-Billabonan iruzurrik ez!* lelopean. 2. Ezker abertzalearen jarraitzaileen eta udaltzaingo buruaren arteko tentsio unea, aretoaren aforoa medio. 3. Jokin Bildarratz (EAJ-PNV), Tolosako alkatea eta Eudeleko lehendakaria, alderdi kideekin aretoan egon zen. 4. Maixabel Arrieta, Amasa-Villabonako alkatea, bilkuraren une batean. 5. Ezker abertzalearen jarraitzaileak bilkura aretoan. 6. EAJ-PNVren hiru zinegotziak PSE-EE eta eurek aurkeztutako mozioa bozkatzeko unean. ASIERIMAZ

## Ezker abertzalearen hautetsien aurka EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako mozioa ez dute onartu

**Amasa-Villabona** » EAJren bi zinegotzi eta EB-Aralarren bakarra ez ziren bilkura aurkeztu herenegun.

**ASIERIMAZ**

Villabonan Osoko Bilkura egin zen herenegun. Gai nagusia EAJ-PNVk eta PSE-EEK elkarren artean adostu eta aurkeztu zuten mozioa izan zen, non udal ordezkariei beren gobernu karguak uztea «exijitzen» zitzaizen. EAJren bi zinegotzi ez ziren bilkura aurkeztu, EB-Aralarren zinegotzi bakarraren antzera. Bilkuran zeuden EAJren hiru zinegotziak eta PSE-

EEren bakarrak egin zuten mozioaren alde. Gobernu osatzen duten ezker abertzalearen 6 hautetsiek aurka bozkatu zuten.

**Bilkura hasieran tentsioa**

Bilkura aurretik ezker abertzalearen jarraitzaileek elkarretaratzea egin zuten udaletxe atarian, *Amasa-Billabonan iruzurrik ez!* lelopean. Ondoren aretora sartu ziren, udaltzaingo buruarekin tentsio unea bizi ostean. Bertan EAJ-PNVren eskualdeko hainbat ordezkari aurkitzen ziren; Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Mari Angeles Lazkano Zizurkilgo alkatea eta ondoren agertu zen Chelo Romeo Ibarroko alkatea, besteak beste.

Ezker abertzalearen jarraitzaileek EAJren aurkako oihaak jaurti zituzten, «herritarren borondatea» errespetatzeko eskatzen zuten bitartean.

**EAJ-PNVk eta PSE-EEK aurkeztutako mozioa**

Bi alderdi hauek adostutako mozioa Bakartxo Tejeriak (EAJ-PNV) irakurri zuen. PSE-EEren eta EAJren zinegotziek «bakeari eta normalizazio politikoari modu eraginkorrean laguntzeko helburua» dutela aipatu zuen. Ondoren lau printzipio aipatu zituzten. Udalarri hauengana konpromezua eskatuz, hauen artean «bizitzeko eskubidea errespetatzea» eta «persona guztiak merezi duten

giza eskubideen defentsa egitea eta hauek urratzeko edonolako saiakera arbuatzea» aipatu zituzten. Printzipio hauek onartzen ez dituen udal ordezkaritari berriz, «dimisioa aurkeztea exijitu» zioten.

**Udalak onartu zuen mozioa**

EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako mozioa atzera bota ondoren, herritar batek aurkeztutako mozioa irakurri zuen alkateak, Maixabel Arrietak: «Herri honetan gakoa gatazka politikoa eta armatua eragiten duten autodeterminazio eskubidearen eta lurraldetasunaren auziei irtenbidea ematea da, (...) sustria etara jotzea, eta bateko zein besteko gaitzespenek ez dute arazo konponduko».

Bigarren mozio hau onartu zen Osoko Bilkuran, aldeko 6 bozka (hautetsi independentistak) eta aurkako 4rekin (EAJ eta PSE-EE).

**«Herritarrei eskerrak»**

Bozketak amaitu ondoren herritarren txanda iritsi zen. Bertan EAJren aurkako mezuak entzun ziren. «Badakizue zein den gatazka honen sorburua eta akats oso larria egin duzue. PSOE laguntzat hartu duzue, oraingo honetan marka guztiak hautsi dituzue. Eskerrak gaizki atera zaizuen herriaren borondatearen aurkako saiakera hau» esan zuten herritar batek.

Amiaerian Remi Aiestaran, hautetsi independentistak, bertara hurbildu ziren herritarrei esker eman zizkien. Horretaz gain, «Arrasatekoa ikusi ondoren, bihar gure buruak non egongo diren» ez zekiela gaineratu zuten.

## Ezker abertzalearen Mobilizazio Eguna

Tolosaldeko ezker abertzaleak hainbat protesta ekitaldi egin zituen atzo, eskualdeko herrietan, «Ino Galparsoro Arrasateko (Gipuzkoa) alkatearen espetxeratzea salatzen eta salbuespen egoerari aurre egiteko». Horretaz gain, atxilotetaren errua PSOEn leporatu zion ezker abertzaleak.

Elkarretaratzeak, gizakateak, eta manifestazioak, besteak beste ondorengo herrietan egin ziren: Adunan, Amezketan, Anoetan, Ikaztegiatan, Tolosan eta Villabonan. Irudian Tolosan egindako elkarretaratzea ikusten da.



Mobilizazio Egunean elkarretaratzea egin zuten Tolosako Triangulean. Ir. ASIERIMAZ

**«EAJ-PNV erantzule»**

EAJk eta PSE-EEK Villabonako udaltxean bezala, hainbat udaltxetan aurkeztutako mozioak hizpide izan zituzten ezker abertzaleak: «EAJk eta PSOEk adostutako mozioen bidez Garzoni bidea ireki baino ez diote egin, bidea erraztu diote, eta gure alkateak errepresioaren dianan kokatu dituzte. Hortaz, inoiz baino argiago esan nahi dugu EAJ ere badela Inoren espetxeratzearen eta etor daitezkeen erasoaren erantzule, eta EAJrekin batera estrategia hau bere egin duten alderdietako zuzendaritzak».

**Iritziak**



**Web orrian dauden bideoek sortutako iritziak.**

- «Animo Maixabel, zu villabonatarren alkatesa».
- «Bakartxoren eta bere bizkartzainen errikidulo nabarmena ikus daiteke bideo hauetan, atzokoan ez nintzen plenoan izan baina Bakartxok Villabonan galdu du, 800 boto galdu eta gero PSOEn eskutik hau? Bakartxo nora zoaz?».



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leizaola:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leizaola:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Tolosa.** La mancha antzerki taldearen eskutik, Almudena Sanchez Pascualen *La ollalanaren bertsoia* ikusi ahal izango da Leidor aretoan 20:30ean. Sarrera doan.  
■ **Villabona.** *Ostrukaren zuloa* dantza garaikidea emanaldia Ertza taldearen eskutik Gurea zinemaren 22:30ean, Kontseiluaren 10. urte-mugan.

### Musika

■ **Tolosa.** Esnatu+lain taldea Bonberenean 22:30ean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Cometas en el cielo* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 22:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.



## A Agurrak



### Urte askoan!

#### Irati Irazusta (Anoeta).

Gaur 7 urte. Zorionak aitatzotz eta amaxoren partetik!



### Urte askoan!

#### Mikel Otermin Pagola (Anoeta).

Gaur 3 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.

## Harriaren omenezko jaia ospatzen

**BEDAIO** ■ Bedaion Harri Jaia ospatu zuten atzo: hamaiketako azkenean, elizako atariko plazan egin beharrean, Artubi elkartearen egin zuten, eguraldia nahasia zegoelako. 50 lagunek egin zuten hamaiketako, ber-

tan Mañukorta eta Agirre bertsolariekin, trikitilarekin eta Joxe Agirre apaizarekin batera. Artubi elkarteok lanean jarraitu zuten 80 bat laguntzat, goizetik hasita afari legea egin arte, jatekoak ateraz. n.u.



## 2 sarrera pare zozketan

**Ken 7**

Maiatza Saltsan '08ren baitan

### irabazleak:

- Gurutze Galarraga (Zizurkil)
- Amaia Larrarte (Villabona)

Maiatzak 10, larunbata • 22:00etan Zizurkilgo Intxaur Frontoian



## 2 sarrera pare zozketan

### irabazleak:

- Martxeli Sagastume (Alegia)
- Olatz Olaetxea (Tolosa)



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

berriak **5** urte

Zatoz gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bideoa
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

### TOLOSALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan Tolosako Kurtur etxean

**berria**  
luzatu bostekoa

